# HABE

**C2 MAILA**

**M2016 1**

**Egoera**

*DeustoForum*-ek antolatutako jardunaldietan parte hartzeko gonbitari baiezkoa eman ondoren, aste honetan dira ospatzekoak aipatu jardunaldiak Gasteizko Europa Jauregian. Unibertsitatetik kanpoko aditu askok eman du izena jardunaldi hauetan.

Jardunaldien ospe ona, batetik, eta gaiak sortarazi duen interesa, bestetik, Deustuko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzuak hitzaldiaren laburpena ahoz ere eskaintzea erabaki du, laburpen idatziarekin batera.

**Egitekoa**

Egin **hitzaldiaren ahozko laburpena,** gaiari buruzko interesgunerik garrantzizkoenak eta berritzaileenak azpimarratuz, eta gaiarekiko leudekeen aurreiritziei erantzunez.

**Prestaketa:** 30 minutu.
**Iraupena:** 10 minutu.

**Ebaluazio-irizpideak**

Honakoak hartuko dira kontuan:

1. Egitekoa bete duzun, eskatutako ekintza komunikatiboa eta iraupena errespetatuz.
2. Zuzen bete duzun, gramatika-arauak eta lexikoaren erabilera.
3. Egoki bete duzun, testuingurua kontuan hartuta, ulergarria dela, ondo egituratuta eta garatuta eta adierazpide egokiaz hornituta.

# HABE

**C2 MAILA**

**M2016 2**

**Egoera**

EHU, atzerriko unibertsitate ospetsu batekin elkarlanean, zure espezialitateko gaiari buruzko jardunaldi batzuk antolatzen ari da. Bertan parte hartzeko gonbita hainbat adituri egin dio, eta parte-hartzailerik egokiena hautatu beharrean daude, gonbitak erantzun oso zabala izan baitu.

Antolatzaileek zure ahotik entzun nahi dituzte zeintzuk diren gaiari buruzko ekarpen esanguratsuak eta zein neurritan diren berritzaileak.

**Egitekoa**

**Azaldu** arduradunei egindako lanaren **indarguneak**, eta, batez ere, k**onbentzitu** itzazu antolatzaileak zu hauta zaitzaten eta zeure parte-hartzearen aldeko erabakia har dezaten.

**Prestaketa:** 30 minutu.
**Iraupena:** 10 minutu.

**Ebaluazio-irizpideak**

Honakoak hartuko dira kontuan:

1. Egitekoa bete duzun, eskatutako ekintza komunikatiboa eta iraupena errespetatuz.
2. Zuzen bete duzun, gramatika-arauak eta lexikoaren erabilera.
3. Egoki bete duzun, testuingurua kontuan hartuta, ulergarria dela, ondo egituratuta eta garatuta eta adierazpide egokiaz hornituta.

# HABE

**C2 MAILA**

**M2016 3**

**Egoera**

Zuk landutako gaiaren inguruko interesa, gaur egun, handia dela antzemanda, eskualdeko irratiak lankidetza eskatu dizu, gaiari buruzko hausnarketa bultzatu eta entzuleek iritzi kritikoa osa dezaten.

Zure azalpenak eta xehetasunak xede horretarako baliagarri izango direlakoan, irratsaio berezi bat antolatu dute, eta, zuk azalpenak eman ondorenean, entzuleek ere aukera izango dute irratsaioan zuzenean parte hartzeko.

**Egitekoa**

Irratian zaude zuzenean. Azaldu zeure gaia, alderdi garrantzitsuenak adieraziz eta jendartean egon daitezkeen zalantzei erantzunez.

**Prestaketa:** 30 minutu.
**Iraupena:** 10 minutu.

**Ebaluazio-irizpideak**

Honakoak hartuko dira kontuan:

1. Egitekoa bete duzun, eskatutako ekintza komunikatiboa eta iraupena errespetatuz.
2. Zuzen bete duzun, gramatika-arauak eta lexikoaren erabilera.
3. Egoki bete duzun, testuingurua kontuan hartuta, ulergarria dela, ondo egituratuta eta garatuta eta adierazpide egokiaz hornituta.